

Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak



Nire amaren autobiografia

Jatorrizko izenburua: *The Autobiography of My Mother*

Egilea: Jamaica Kincaid

Itzultzailea: Alberto Martínez de la Cuadra

Argitaratze urtea: 2012

Argitaletxea: Alberdania & Erein & Igela

Literatura Unibertsala bilduma

ANDER ARANA

Elaine Cyntia Potter Richardson 1949an jaio zen Antigua uharteko St. John's hiriburuan, eta hamazazpi urte besterik ez zituenean New Yorkera bidali zuten *au pair*, handik familiari laguntzeko dirua bidal zezan. Horixe bera egin zuen hasieran, baina urte gutxi batzuk baino ez ziren igaro familiarekiko kate hori hautsi eta, Jamaica Kincaid izena hartuta, bizitza berri bat abian jarri zuen arte. Iraganarekiko haustura eta galera hori gabe nekez uler liteke emakume karibe honen literatur lanetan guztietan entzun daitekeen ahotsa: iragan kolonialarekiko katea hautsi ezin duten herrien ahotsa, eta, zehazki, herri horietako emakumeena, zeinek zapalkuntza bikoitza jasan behar (izan) baitute; hain zuzen ere, herri gisa bizi behar izan dutena eta emakume diren aldetik egunero bizi dutena. Horregatik ez da harritzekoa Jamaica Kincaiden lan guztietan —baina bereziki, *Nire amaren autobiografia*— hain agerikoak izatea Frantz Fanon eta gisako pentsalariak postkolonialismoari buruz egindako azterlanetan jasotako ondorioekiko kointzidentziak. Izan ere, Jamaica Kincaiden lanen ezaugarri nabarmenetako bat da aldiro darabiltzala kontu biografikoak eta etengabea dela Karibeko herrien kolonizazioari eta deskolonizazioari buruzko hausnarketa kritikoa.

Nire amaren autobiografia, Xuelak bere bizitzaren kontakizuna egiten digu. Liburuan zehar, bat ere elkarrizketarik gabe eta kontakizunean beste inori esku hartzeko betarik eman gabe, Xuela zaharrak bere bizitza kontatzen digu. Jaio zenean hil zitzaion ama, eta harrezkero alferrik saiatu da amaren hutsunea betetzen eta haren irudia osatzen. Aita ez zitzaion hil, baina benetako aitarik gabe bizi behar izan du beti. Hortaz, bakarrik eta bakardadean hazi behar izan du, eta beharbada hori dela-eta jakin du aurkitzen babeslekua. Txiki-txikitandik, erreprimitu behar zuela irakatsitako guztiarekiko joera eta grina sentitzen du, eta bere gorputzean aurkitu du babeslekua, hainbesteraino non errepresioari eta zentsurari aurre egiteko modurik baliagarriena gorputza usaintzea eta ukitzea bilakatuko baitzaio, «inori entzuten utziko ez nion plazer hasperen ito bat nire ezpainenatik irteten zen arte», eta, hein batean, bide hori bera baliagarria gertatuko zaio bere amaren hutsunea betetzeko ere, «nire bizitzaren kontakizun hau nire amaren bizitzaren kontakizuna izan baita, nirearen kontakizuna izan den neurrian».

Nire amaren autobiografia ñabardurez beteriko kontakizuna da, lerro hauen bidez iradokitzen saiatu naizenetik askoz ere harago doana; garaile eta garaituei buruzko eleberririk konplexua da, poesiaren musikaltasuna gertu-gertutik jarraitzen duen ahots landu eta iradokitzaile batez emana.

Aukera ederra, nire ustez, Literatura Unibertsala bildumaren hirugarren aroari hasiera emateko. Ez da horrenbeste denbora joan bilduma 90eko urteetan lehen fruituak ematen hasi zenez geroztik, baina lekutan

gelditzen da, gaurko begiez ikusita, orduko hasiera malkartsu eta arantzatsu hura; besteak beste, Alberto Martínez de la Cuadra bezalako itzultzaile fin eta zorrotz askori esker, zeinak lehenago ere lan aparta egin baitzuen Chinua Acheberen *Gainbehera dator dena* — kolonialismoari buruzko eleberri bikaina hura ere, gaur hizpide dugunaren oso bestelakoa— itzuli zuenean.